

47 ■ Euskaltzaindiaren Baionako egoitza

Ofizialtasunaren aldeko aldarria izan zen atzo Herriko Etxeak utzitako egoitza erreberituaren estreinaldia.



54-55 ■ Iruña-Veleian, atek zabalik

Bisita gidatuekin, irakaskuntza gune bilakatuko dira gaurtik aurrera aztarnategi arkeologikoko indusketak.

Musikarentzat, argia

Gaz Arkitektoak taldeak irabazi du Musikereren egoitza berrirako diseinu arkitektonikoen lehiaketa

JUAN LUIS ZABALA
Donostia

Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Kontserbatorioaren premiak pizgarri bihurtzea bilatzen duen proiektu batekin irabazi du Bilboko Gaz Arkitektoak taldeak Musikereren egoitza berrirako diseinu arkitektonikoen lehiaketa. «Lan ausarta da, baina ausardia hori justifikatua dago», Asier Atxurra Gaz Arkitektoak taldeko kidearen ustez. Asier Atxurrekin batera, Aitor Garcia Gurtubaik eta Unai Zelaiak osatzen dute Gaz Arkitektoak taldea.

Donostiako Udalak Ibaeta auzoan utzitako orube batean eraikiko da Musikereren egoitza berria, Europako Plazaren ondoan. Obrak datorren urtearen hasieran abian jartzea espero dute Musikereneko arduradunek, eta bi urteren buruan amaitzea, 2010ean.

URRE KOLOREZ ARGIZTATUTAKO PATIOAK. Hasieratik, «zizelkatu beharreko pieza handi baten gisa» hartu zuten eraikina Gaz Arkitektoak taldeko kideek, Atxurra azaldu duenez. Eraikin ilun handia izango da, eta, kontraste gisa, urre kolorez argiztatutako patioak izango ditu. Patio horiek barruko ikasgeletara argia iragaziko dute, eta kanpoaldera ere argia igorriko dute.

Eraikinaren bi alderdiren artean ere kontrastea izango da: batek, alderdi «adierazkorra» izango

du, Europako Plazari begira dagoena; bestetik, alderdi «mutua», Elias Salaberria kalera begira dagoena. Europako Plazan hiriko bide garrantzitsu batzen dira; Elias Salaberria kalea, aldiz, etxebizitzaren gune da.

Beheko solairua erabilera publikoari irekia izango da: 375 ikusentzulerentzako lekua izango duen auditoriuma egongo da, eta aldemenan kafetegia eta denda. Auditoriumean emanaldi bat dagoen, beheko solairuak bere bizitza autonomoa izango du, ikasgeletako ekimenei ezertan eragin gabe. Lehen pisuak ikasgelak eta liburutegiak hartuko ditu. Hirugarrenean gela handiak izango dira, orkestren, abesbatzen eta dantza taldeen entseguetarako egokituak.

«**GUTIZ PREMIAZKOA**». Egoitza berria guztiz premiazkoa da Musikerenerentzat, Juan Jose Pujana Musikereneko koordinatzaile nagusiaren ustez. 500 ikasle eta 182 irakasle ditu egun Musikerenek, eta Donostiako lau gunetan banatuta dituzte beren zereginak. «Lau gune horietan banatuta, 5.000 metro koadroko azalera erabilgarria du Musikerenek, eta espazio hori murriztegia geratzen zaigu. Espazioz oso justu gabiltza».

«Duela sei urte jarri zen abian Musikerene, gune nagusitzat Miramar jauregia harturik, eta orain arteko ibilbideak Musikerenek dituen premien berri jakiteko aukera ematen dute», azaldu du Pablo Larrauri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak.

Eraikin berriaren ideien lehiaketara 45 lan aurkez-



tu ziren lehenik, eta horietatik zortzi hautatu zituzten lehiaketa murrizturako.

Lehiaketa horren irabazlea hautatzeko, honako irizpide hauek hartu dira aintzat: kalitate arkitektonikoa (30 puntu), Musikereren premietarako egokitzapena (20 puntu), bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa (20 puntu), interpretazio urbanistikoa (10 puntu), iraunkortasuna edo ingurugiro alde-tiko balioak (10 puntu) eta

■ ZENBAKI BATZUK

- **Aurreikusitako aurrekontua:** 21,3 milioi euro.
- **Eraikitako zabalera:** 13.844 metro koadro.
- **Irakaskuntza eta administrazioaren eremua:** 7.100 metro koadro.
- **Auditoriumeko aulkiak:** 375.
- **Irakaskuntzako gelak:** 80.
- **Entsegu kabinak:** 52.
- **Orkestra, abesbatza eta dantzarako gelak:** 6.
- **Ikasleak (egun):** 500.
- **Irakasleak (egun):** 182.

bestelakoak (10 puntu). Pujanak azaldu duenez, aurkeztutako proiektuen artean kalitate handiko asko egon dira, eta erabakia hartzea ez da erraza izan. «Hala ere, aho batez hartu da Gaz Arkitektoak diseinatutako egitasmoaren aldeko erabakia, aurretik behar adina eztabaidatu ondoren». Gaz Arkitektoak taldearena izan da «proiekturik landuena», Puajanaren ustez; «eta baita «planteamenduaren arraziotasunean gehien sakondu duena ere».

